

ESTATUEN ESKU-HARTZEA GELDITU



Hizkuntza baten Normalizazio Prozesuak, kasu guztietan, dimentsio politikoa eta soziala du, eta euskararen kasuan ere horrela da. Bai alor politikoan eta bai sozialean ere estrategia desberdinak abiatzen dira euskararen hedapen pertsonala eta soziala lortzeko, nola ezagutzari, hala erabilerari dagokienez. Normalizazio Prozesuaren dimentsio politikolari gagozkiolarik, hizkuntza-politika dugu elementurik azpimarragarriena. Ezinbestekoa euskara normalizatu dadin. **Hizkuntza-komunitateak eskubidea du bere hizkuntza normalizatzeko politika definitzeko eta garatzeko inolako kanpo esku-hartzerik gabe.**

Gaur egun, ordea, hizkuntza-politika eragingarria abian jartzeko oztopoak daude. Euskararen hizkuntza-komunitatetik kanpoko esku-hartzeak eta erabakimenak trabatzen dute. Ikusi besterik ez dago hizkuntzaren normalizazioari begirako erabaki ausartek zer-nolako debekuak izan dituzten.

Debeku horien lagin bat dugu esku artean. Azken hilabeteotan Estatu espainiarrak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan duen ordezkariak, Carlos Urquijok, Gipuzkoako Foru Aldundiari hizkuntza irizpideak ezartzeko hartutako erabakia bertan behera uzteko agindu dio. Neurri hau 2009an Markel Olano Ahaldu Nagusia zela hartu bazen ere, Aldundia orain aplikatzen hasi eta Urquijok errekerimenduak abiatu ditu.

Bestalde, udalei ere hizkuntza irizpideen gaiarekin hartutako erabakiak atzera egitea agindu zien Urquijok. (<http://www.gipuzkoaeuskara.net/albisteak/1392292645>) Azken egunotan Euskara Planak ere igortzea eskatzen ari da hainbat Udaletan. Tartean, zuen Udalean.

Hona informazio zabalagoa:

http://paperekoa.berria.info/harian/2014-03-07/013/002/urkijok_kontratazioetan_hizkuntz_irizpiderik_ez_ezartzeko_eskatu_du.htm

Kontseiluak egoera hau salatu du berriki eta estatuaren esku-hartze honen aurrean erantzuna emango duela iragarri:

http://www.kontseilua.org/index.php?id_saila=54&id_edukia=579

Gauzak horrela, Kontseiluak errekerimenduak jaso diren Udaletako **herriko plazetan** elkarretaratzeak deituko ditu **APIRILAREN 9an, 19:00etan**. Horretarako, tokiko euskalgintzako kide zarenekin harremana burutzen ari gara zuen herrian kontzentrazioa deitze aldera. Kontzentrazioa deitzeko material digitalarekin batera paperezkoa ere pasako dizuegu. Material hau ostegunean, apirilak 3 helaraziko dizuegu zuen erakundeak adierazitako tokira.

Elkarretaratze hauekin bidali nahi den mezua hemen guk erabakitzen dugula da. Esku-hartzea garatzeko eszenifikazio txiki bat egin nahi dugu. Horretarako, hasierako argazkian duzuen keinua, “geldi” adieraziz egitea eskatzen dizuegu. Kartelekin batera pintura potetxo batzuk jasoko dituzue. Jendearen eskuak kolore ezberdinez margotzea nahi dugu. Jasoko dituzuen koloreak “Euskaraz bizi nahi dut” logoan daudenak dira, lotura hori egin eta aniztasuna adierazi asmoz. Helburua, beraz, egiten diren kontzentrazioetan bertaraten diren herritarren eskuak “geldi” keinua egin, kolore ezberdinetan agertzea da.



1. Euskaraz bizi nahi dugu eta horretarako eskubidea dugu. Geure herrian euskaraz bizitzeko, hizkuntza-politika eraginkorrak beharko ditugu.
2. 38 udalotan hartu diren erabakiak (hizkuntza-irizpideak zein euskara planak) herritarron eskubideak bermatzeko urratsak dira. Zentzu honetan, gure Udalek hartutako neurri hauek, lehenago ere hartu direnak zein etorriko direnak txalotzen eta babesten ditugu.
3. Hizkuntza-komunitateak eskubidea du bere hizkuntza normalizatzeko politika definitzeko eta garatzeko inolako kanpo esku-hartzerik gabe. Eta hilabeteotan Espainiako ordezkari, Carlos Urquijok abiatutakoa esku-hartze nabarmena da. Geure etxean zer eta nola egin behar dugun ez digute kanpotik esan behar. Guri, eta ez beste inori dagokigu erabaki hori.
4. Euskalgintzako eragileok herritarrak egunerokoan euskaraz bizitzeko hautua egiten jarraitzera animatzen ditugu eta instituzioak euskaraz bizi gaitzen neurriak hartzera.
1. Euskalgintzak, berriz, hizkuntza-politika eraginkorrak ezartzeko bidean urratsak ematen dituztenak babesteko lan egingo du. Ondoan izango gaituzte.

